

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

1054

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 27koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira, batetik, 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena, organo berarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituen eta bestetik, 2024ko azaroaren 22ko Ebazpena, organo berarena, prozesu horietako azken kalifikazioak eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua ematen duena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko maiatzaren 18an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren arautzeko nola bideratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko azaroaren 18an emandako beste agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegu publikoa finkatzeko prozesu berezietako eta enplegu publikoa finkatzeko salbuespenezko prozesuetako deialdia egin zen, eta prozesu horietako oinarri espezifikoak onartu ziren.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartu ziren.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko azaroaren 22ko Ebazpenaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zen.

2024ko azaroaren 22ko Ebazpen horien aurka jarritako gora jotzeko hainbat errekurso aztertu ziren, non beste izangai bat hautaketa-prozesutik kanpo uzteko eskatzen zen, parte hartzeko baldintza bat ez betetzeagatik. Errekurtsoak hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza bati buruzkoak zirenez, eta –hautaketa-prozesuaren azken uneetan baldintza hori betetzen zela egiaztatzen zuten dokumentuak aurkeztu arte – baldintza hori betetzen zela alegatu baino ez zenez egin, oinarri orokorren 9.3 apartatuan xedatutakoaren arabera, dagokion administrazio-prozedura eskatu zen aurkeztutako gora jotzeko errekurtsok aipatzen zuten baldintza betetzen zela egiaztatzeko, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataformaren bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan sartzeko titulazioaren baldintza betetzen zela egiaztatzeko prozedura horren ondorioz, frogatuta geratu da prozesutik kanpo uzteko eskatu zen pertsonak ez zuela

baldintza hori betetzen, hautaketa-prozesuaren oinarrietan ezarritako datan. Hori dela eta, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren Aginduak jarritako gora jotzeko errekurtoa onartu eta hautaketa-prozesutik kanpo uzteko agindu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko oinarri espezifikoetan ezarritako baldintza betetzen ez zuen pertsona, prozesu horretan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak aldatuz eta azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak aldatuz.

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Lan-arriskuen Prebentzioko Eskalan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartu zituen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena aldatzea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutako izangai bat prozesutik baztertzeko.

Baztertutako izangaia eta betetzen ez duen betekizuna zehaztuko dira Ebazpen honen eranskinean. Eranskin hori argitara emango da hautaketa-prozesuko web-orriko Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuetako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zuen Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko azaroaren 22ko Ebazpenaren aldatzea, zerrenda horietatik izangai hori baztertzeko.

Hirugarren artikulua.– Gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; beti ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Errekurtoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekurtoa, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar dakiok, edo Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 27a.

IVAPeko Zuzendaritza hutsik dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.3 artikulua).

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Hautaketa eta Prestakuntzako zuzendariordea,
IMANOL URIGUEN GARAIZABAL.